DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos

Urdaneta, 13 | Tel. 010 - 943481000 943481021 - | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

2021/010 esp.

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, KALEAN UTZITAKO IBILGAILUAK EDO IBILGAILU HONDARRAK KALETIK KENDU, ERAMAN, TRATATU, DESKONTAMINATU ETA BAJA ADMINISTRATIBOA EMATEKO ZERBITZUA KUDEATZEKO KONTRATUA ARAUTUKO DUENA	**PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS QUE HA DE REGIR LA CONTRATACIÓN DE LA GESTIÓN DEL SERVICIO PARA LA RETIRADA DE VEHÍCULOS O SUS RESTOS ABANDONADOS EN LA VÍA PÚBLICA Y SU TRANSPORTE, TRATAMIENTO, DESCONTAMINACION Y TRATAMIENTO DE LA BAJA ADMINISTRATIVA**
1.- KONTRATUAREN XEDEA.	**1.- OBJETO DEL CONTRATO.**
Kontratu honen xedea da tratamendu zentro batean uztea abandonatutzat jotako ibilgailuak, deskontaminatu ditzaten han; izan ere, betebehar hori jartzen baitio bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuei buruzko 2017ko urtarrilaren 20ko 20/2017 Errege Dekretuaren 5.2 artikuluak Udalari. Alde horretatik, ibilgailu abandonatutzat hartuko dena 2015eko urriaren 30eko 6/2015 Errege Dekretu Legegilearen 106. artikuluak jarritako hura izango da, hau da, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko legearen testu bategina onartzen duen dekretu horrek Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duen 2822/1993 Errege Dekretuko 35.3 artikuluaren gainean edo erregelamendu horren ordezkoaren gainean jartzen duena.	Es objeto de este contrato es el cumplimiento de las obligaciones impuestas al Ayuntamiento por el artículo 5.2 del Real Decreto 20/2017 de 20 de enero, sobre los vehículos al final de su vida útil, de entregar a un centro de tratamiento para su descontaminación los vehículos declarados abandonados de conformidad con el artículo 106 del Real Decreto legislativo 6/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, en relación con el artículo 35.3 del R.D. 2822/1998 de 23 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General de Vehículos o normativa que la modifique o sustituya.
Betebehar hori betetzeko, enpresa bat aukeratzen da, eta hark, ibilgailuak kaletik edo Udalaren biltegitik jaso, bere instalazioetara eraman eta lehen esandako araudiaren arabera kudeatzen ditu bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailu horiek. Dena delako enpresa horrek, 2017ko urtarrilaren 20ko 20/2017 Errege Dekretuan, bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuei buruzkoan, eta hura garatzeko edo aldatzeko araudian jarritako baldintzak bete behar ditu zerbitzu hori eman ahal izateko.	Para el cumplimiento de esta obligación, se selecciona una empresa que cumpla con los requisitos establecidos en el Real Decreto 20/2017 de 20 de enero, sobre los vehículos al final de su vida útil y su normativa de desarrollo o normativa que las modifique o sustituya, que retirará y transportará los vehículos desde la vía pública o depósito municipal de vehículos hasta sus instalaciones para la gestión de los vehículos al final de su vida útil de conformidad con la normativa citada.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6423n III 2012-08

Urdaneta, 13 | Tel. 010 - 943481000 943481021 - | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

2.- DEFINIZIOAK.	**2.- DEFINICIONES.**
Kontratu honen ondorioetarako, 2017ko urtarrilaren 20ko 20/2017 Errege Dekretuaren 3. artikuluan jarritako definizioak hartuko dira aintzakotzat, dekretu horrek eta hura garatu, aldatu edo ordezten duten araudietan bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuei buruz jarritakoak.	A los efectos de este contrato, se tienen en consideración las definiciones establecidas en el artículo 3 del Real Decreto 20/2017 de 20 de enero, sobre los vehículos al final de su vida útil y su normativa de desarrollo o normativa que las modifique o sustituya.
Hala ere, lehen aipatutako errege dekretuaren aplikazio-eremuaren barruan ez dauden ibilgailuei ere aplikatuko zaie kontratu hau; bat ez beste ondorio guztietarako: deskontaminatu eta suntsitzeko beharra, betebehar hori esleipendunak bere borondatez egin baitezake.	No obstante, con respecto a los vehículos que no están dentro del ámbito de aplicación del Real Decreto citado anteriormente, será también de aplicación el presente contrato a todos los efectos, salvo la obligación de descontaminación y destrucción, la cual podrá ser realizada voluntariamente por el adjudicatario.
3.- ZERBITZUA EMATEA.	**3.- PRESTACIÓN DEL SERVICIO.**
Ezinbesteko baldintza da esleipenduna Ibilgailuak Tratatzeko Zentro Baimendu baten titularra izatea eta ibilgailuak kudeatzeko izan behar diren instalazio eta baliabide teknikoak izatea. Instalazio eta baliabide tekniko horiek bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuei buruzko 2017ko urtarrilaren 20ko 20/2017 Errege Dekretuan edota aplikatu beharreko beste araudi batean jarritako baldintzak bete behar dituzte.	Será requisito imprescindible que el adjudicatario sea titular de un Centro Autorizado de Tratamiento de Vehículos y dispondrá de las instalaciones y medios tecnicos para la gestión de los vehículos. Dichas instalaciones y medios tecnicos deberán cumplir los requisitos establecidos en el Real Decreto 20/2017 de 20 de enero, sobre los vehículos al final de su vida útil, así como a otra normativa que sea de aplicación.
Zerbitzu hau hartzen duen enpresaren betebeharra izango da Udalaren Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Administrazio Atalak eskatutakoan kalean utzita edo Udalaren biltegian jasota dauden ibilgailu abandonatuak handik hartu eta bere instalazioetara eramatea, udalbarrutiko edozein tokitan direla ere kaletan utzitako horiek.	La empresa adjudicataria del servicio tendrá la obligación, a requerimiento de la Sección Administrativa de Mantenimiento y Servicios Urbanos, de retirar y transportar hasta sus instalaciones los vehículos que se encuentren en situación de abandono, desde cualquier punto del término municipal o desde el Depósito de vehículos municipal.
Ibilgailuak jaso eta eramateko epea esleipendunak bere proposamenean jarritakoa izango da. Baina, lehen esan dugun Administrazio Atalak eskatu eta lau egun baliodun pasa baino lehen,	El servicio de retirada y transporte se realizará por el adjudicatario en el plazo indicado en la propuesta por el adjudicatario, y en todo caso antes de cuatro días hábiles desde el

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6423n III 2012-08

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

betiere; salbu eta administrazioak premiazkotzat jotako kasuetan, egun baliodun bat izango baita halakoetan.	requerimiento por la Sección Administrativa, excepto en los casos de urgencia así declarada por la administración, que será de un día hábil.
Ibilgailua jaso eta eramateko eskaera, eskaera egin delako arrastoa geratzeko moduko edozein moduz egin ahal izango da (posta elektronikoa, zentraleko telefonoa, etab.), ibilgailuaren matrikula, marka eta modeloa eta non dagoen adierazita, betiere.	La solicitud de retirada y transporte se podrá realizar por cualquier medio que quede constancia del requerimiento de retirada (correo-e, teléfono de central, etc.), haciéndose constar la matrícula, marca y modelo y lugar donde se encuentra el vehículo.
Ibilgailua jaso eta eraman delako agiria ere egingo da, ibilgailua deskontaminatzeko prest utzi dela erakusten duena. Agiri hori esleipendunak sinatuko du ibilgailua kentzekoan, eta gutxienez hiru argazki ere erantsiko ditu, ibilgailuaren egoera eta zituen baldintzak erakusteko modukoak.	Se expedirá acta de retirada y transporte, demostrativo de la puesta a disposición del vehículo para su descontaminación, que firmará el adjudicatario en el momento de la retirada, adjuntándose al menos tres fotografías con el acta donde se aprecie la situación del vehículo y las condiciones del mismo.
Trafikoari buruzko Udal Ordenantzaren arabera ibilgailua azkar kentzeko premia edo beharra izan eta, indarrean den araudiaren arabera, ibilgailua abandonatuta zegoela deklaratu baino lehenago eramanez gero, bere instalazioetan eduki behar du ibilgailua esleipendunak, tratatu gabe, harik eta Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Administrazio Atalak hondakin gisa tratatzen has daitekeela jakinarazi arte.	En los casos de urgencia o necesidad de conformidad con la Ordenanza Municipal de Tráfico, en que se haya realizado la retirada y traslado de un vehículo sin haber sido declarado previamente en abandono, según la normativa vigente, el adjudicatario depositará el vehículo en sus instalaciones sin proceder a su tratamiento hasta que le sea comunicado por la Sección Administrativa de Mantenimiento y Servicios Urbanos que ya puede iniciar su tratamiento como residuo.
4.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.	**4.- OBLIGACIONES DEL/A ADJUDICATARIO/A.**
Esleipendunaren betebeharrak dira:	Estará el/la adjudicatario/a obligado:
• 2017ko urtarrilaren 20ko 20/2017 Errege Dekretuan, bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailueï buruzkoan, eta hura garatzeko, aldatzeko edo ordezteko araudian jarritako betebeharrak betetzea, baita kontratuaren indarraldi osoan ere.	• Cumplir con las obligaciones establecidas en el Real Decreto 20/2017, de 20 de enero, sobre los vehículos al final de su vida útil y su normativa de desarrollo o normativa que las modifique o sustituya, así como durante toda la vigencia del contrato.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6423n III 2012-08

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

• Lan, gizarte segurantza nahiz laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden xedapenak betetzea.	• Al cumplimiento de las disposiciones vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y Seguridad y Salud en el trabajo.
• Kontratistaren arrisku eta menturaz burutuko da kontratua, pleguetan jarritako baldintzen eta eskainitako hobekuntzen arabera eta Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Administrazio Atalak kontratua interpretatzeko ematen dituen jarraibideen arabera.	• A ejecutar el contrato, que se realizará a riesgo y ventura del/de la contratista, con sujeción a las condiciones establecidas en los pliegos y de acuerdo con sus mejoras ofertadas y con las instrucciones que para su interpretación emita la Sección Administrativa de Mantenimiento y Servicios Urbanos.
• Ibilgailua jaso eta eramateko epea betetzea eta ibilgailua jaso eta eramateko agiria sinatzea hura eramateko garaian.	• Al cumplimiento del plazo de retirada y transporte y a la firma del acta de retirada y traslado en el momento de la ejecución.
• Lanak eskainitako epeetan ondo egiteko behar diren ekipoak eta baliabide osagarriak jarri eta kontratatzea.	• A aportar y contratar para la realización de los trabajos el equipo y medios auxiliares ofertados y precisos para la buena ejecución de los mismos en los plazos ofertados.
• Lokal edo lursail bat izatea ibilgailuak gordetzeko. Gutxienez hirurogeita hamar ibilgailu batera gordetzeko adina toki izango du, horietatik gutxienez berrogei auto edo furgoneta txiki izango direlarik.	• A disponer de un local o terreno donde se almacenarán los vehículos. Tendrá un espacio reservado exclusivamente para almacenar de forma simultanea un mínimo de setenta vehículos, de los cuales como mínimo cuarenta puedan ser turismos o furgonetas pequeñas.
• Lokal edo lursail hori Donostiako udal-mugartetik 25 kilometro baino gehiagora badago, eta esleipendunak ibilgailu edo objektu pertsonalen bat herritarren bati eman behar badio, Donostiako Udalaren biltegian entregatu beharko dio.	• Si el local o terreno donde se almacenarán los vehículos está situado a mas de 25 kilómetros del termino municipal de Donostia, en caso de que el adjudicatario tenga que entregar un vehículo o algún objeto personal a algún ciudadano, lo entregará en el depósito municipal de vehículos de Donostia.
• Kendutako eta eramandako ibilgailuak deskontaminatzeko tratamendua egitea, bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuei buruzko 20/2017 Errege Dekretuaren eta hura garatzeko edo ordezteko araudiak agindutako eran.	• Al tratamiento para su descontaminación, de los vehículos retirados y trasladados, de conformidad con el Real Decreto 20/2017 de 20 de enero, sobre los vehículos al final de su vida útil y su normativa de desarrollo o normativa

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6423n III 2012-08

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

	que las modifique o sustituya.
• Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Administrazio Atalari ibilgailua desegin delako ziurtagiriaren kopia ematea, 10 egun natural joan baino lehen.	• A la entrega a la Sección Administrativa de Mantenimiento y Servicios Urbanos copia del certificado de destrucción del vehículo, en plazo no superior a 10 días naturales.
• Ordaindu beharreko kudeaketa gastuak ordaintzea.	• Al pago de los gastos de gestión que correspondan.
• Ibilgailuak jaso, eraman, deskontaminatu edo kontratua gauzatzeko egin beharreko beste edozein eragiketen ondorioz hirugarrenei egindako kalte eta galera guztien ordaina ematea.	• A la indemnización de daños y perjuicios que se causen como consecuencia de la retirada, traslado, descontaminación y demás operaciones que requiera la ejecución del contrato.
Udalari ahalmena ematen zaio kontratua salatzeko, indarrik gabe uzteko eta behin betiko bermea galtzeko, pleguetan edo kontratuaren oinarri izango den proposamenean jarritako edozein baldintza ez betetzeagatik.	Se faculta al Ayuntamiento para denunciar el contrato, dejándolo sin efecto y con pérdida de la garantía definitiva por incumplimiento de cualquiera de las condiciones establecidas en los pliegos o propuesta como base del contrato.
Era berean, edozein unetan eska dezake kontratuak dakartzan betebehar ekonomiko guztiak egunean izatea, eta, aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, zor zaizkionak premiamendu bidez eta dagozkion legezko errekarguekin kobratu ahal izango ditu.	Asimismo, podrá exigir, en cualquier momento, estar al corriente en el pago de cuantas obligaciones de carácter económico se deriven del mismo, pudiendo con independencia de lo dispuesto en el párrafo anterior, proceder al cobro de las que se le adeuden por vía de apremio y con los recargos legales pertinentes.
• Erantzukizuneko aseguru-poliza bat izatea, gutxienez 300.000 €-rena, ibilgailuak kaletik kentzekoan eta zainduta edukitzekoan bide publikoari, ondasunei edo pertsonei egindako kalteak tapatzeko.	• A suscribir una póliza de seguros de responsabilidad por posibles daños en la vía pública, bienes o personas por la retirada y custodia de los vehículos por un importe mínimo de 300.000€.
• Ibilgailuak kaletik azkar eta seguru kentzeko moduko baliabideak izatea eta erabiltzea, ibilgailuen eta oinezkoen trafikoari ahalik eta endredorik txikiena sortzeko, eta, alde horretatik, gutxienez garabi bat eta gidari bat izatea ibilgailuak kentzen aritzeko.	• A disponer y utilizar los medios de retirada de los vehículos que garanticen la agilidad y seguridad de los trabajos, y eviten incomodidades al tráfico rodado y peatonal y a contar como mínimo con una grúa y un conductor para la retirada de vehículos.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6423n III 2012-08

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Urdaneta, 13 | Tel. 010 - 943481000 943481021 - | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Esleipendunak izango du burututako lanen kalitatearen nahiz emandako prestazio eta zerbitzuen ardura; eta baita Administrazioarentzat nahiz besterentzat izan daitezkeen ondorioena ere, kontratua burutzekoan izandako okerrak, ez egiteak, metodo desegokiak edo ondorio okerrak direla eta izandakoena. Ez du erantzukizunik izango antz emandako akatsak Administrazioaren agindu baten edo hark jarritako baldintzen ondorio zuzenak baldin badira.	El/la contratista será responsable de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados, así como de las consecuencias que se deduzcan para la Administración o para terceros/as de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato. Sólo quedará exenta/o de responsabilidad cuando los vicios que se observen sean consecuencia directa de una orden de la Administración o de las condiciones impuestas por ella.
• Zerbitzua emateko behar diren administrazio baimen edo lizentziak ateratzea. Baimen eta lizentzia horiek esleipendunaren kontu izango dira beti, eta eskatu ere haren izenean eskatu behar ditu.	• A la obtención de cuantas licencias o autorizaciones administrativas sean precisas para la prestación del servicio, que correrán siempre a cargo del/de la adjudicataria/o, quien deberá pedirlas en su nombre.
• Isilpean edukitzea esleipendunak kontratuan diren zerbitzuen inguruan eskuratzen dituen datu guztiak, isilpekoak baitira horko datuak eta izenak. Esleipendunak kalte-ordaina eman beharko die Udalari eta eragindako pertsonei, isiltasun profesionalaren betebeharra urratzeak eragindako kalte-galerengatik.	• A guardar la identidad y secreto de todos aquellos datos que pudiera conocer la empresa adjudicataria en relación con los servicios contratados se entienden confidenciales. El/la adjudicatario/a deberá indemnizar al Ayuntamiento y a las personas afectadas por los daños y perjuicios causados por la contravención del deber de sigilo profesional.
• Kontratua behar bezala betetzeko izan behar diren beste zerbitzu profesional batzuk ere ematea (lan edo informazio bileretara joatea, konparazio baterako), beste kosturik gabe horregatik.	• A prestar, sin derecho de pago suplementario, los servicios que se estimen necesarios para el correcto desarrollo y cumplimiento del contrato, tales como asistencia a reuniones de trabajo o informativas.
• Administrazioak kontratua ahalik eta ondoen betetzeko jartzen dizkion tresna edo programa informatikoak erabiltzea. Zerbitzua asteburuetan ematen bada, esleipendunak 12 - 36 ordu baino lehen eguneratu behar ditu egindako zerbitzuen datuak.	• A utilizar las herramientas o programas informáticos que le habilite la administración para la más correcta ejecución del contrato. La adjudicataria deberá actualizar los datos de los servicios realizados en un máximo de 12 horas y 36 horas en el caso de que el servicio se realice en fin de semana.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6423n III 2012-08

• Ibilgailuak bide publikotik kentzeko Udalari ordaindu beharreko kanona hiru hilean behin ordaintzea.	• A abonar trimestralmente el canon correspondiente a la retirada de los vehículos de la vía pública al Ayuntamiento.
5.- UDALAREN BETEBEHARRAK.	**5.- OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO.**
Donostiako Udalak hitz ematen du kontratu honen xede diren ibilgailuak esleipendunari entregatuko dizkiola, hark kaletik kendu, eraman eta kudeatu ditzan. Hartarako, kendu behar den ibilgailua non den eta zer modelo, marka eta matrikula duen adieraziko dio Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Administrazio Atalak esleipendunari.	El Ayuntamiento de Donostia se compromete a la entrega de los vehículos objeto de este contrato al adjudicatario, para su retirada, traslado y gestión, facilitando por la Sección Administrativa de Mantenimiento y Servicios Urbanos la comunicación en que conste lugar de retirada, matrícula, marca y modelo del vehículo a retirar.
Era berean, esleipendunari kontratua burutzeko egin behar diren lanak errazteko konpromisoa ere hartzen du.	Se compromete asimismo a facilitar al adjudicatario las operaciones necesarias para la ejecución del contrato.
6.- BALDINTZA EKONOMIKOAK.	**6.- CONDICIONES ECONÓMICAS.**
Esleipendunak hiru hilean behin ordainduko dio kanona Udalaren Diruzaintzari.	El canon será satisfecho por el adjudicatario a la Tesorería Municipal con una liquidación trimenstral.
Herritarrak ibilgailua berreskuratuz gero, hiru hilabeteko likidazioan konpentsatuko zaio kontratistari ibilgailu hura kaletik kendu eta gordeta edukitzeko gastuarena. Kontzeptu horiek arautzen dituen zerga ordenantzan une bakoitzean jarrita den tarifa aplikatuko da horretarako.	Cuando se trate de vehículos que han sido recuperados por los ciudadanos, los gastos de retirada y depósito generados al contratista le serán compensados en la liquidación trimestral aplicando las mismas tarifas establecidas en cada momento en la ordenanza fiscal reguladora para tales conceptos.
Likidazioan, ibilgailua zein egunetan kendu zen eta zer modelo, marka eta matrikula zuen ere jasoko da.	En la liquidación, figurará fecha de retirada, matrícula, marca y modelo del vehículo retirado.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6423n III 2012-08

Donostian, 2021eko otsailaren 8(e)an.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Administrazio Atalaren burua

PS.

Jon Amondarain Ayerbe

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkaritza - Dirección Jurídica
Tokiko Gobernu Batzarrak onartua.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local
2021 MAR 23
Batzordeko idazkaria,
El/La secretario/a de la Junta,